



Gomendio espezifikoak

BITXI-DENDAK

- Bezeroak ez du azalerarik, beira-arasik edo katalogorik ukituko, saltokikoek emandako eskularru berriekin izan ezik. Bezeroak ezingo ditu salgaiak ukitu, dendariak erakutsiko dizkio.
- Orokorrean, lanaren ondoren bitxiak garbitzeko, nahikoa da piezak ur epeleten kontuz xaboitzea (baxera detergenteaz, esaterako). Ondoren, ur epeletan pasa eta ile lehorgailuarekin lehortu, aire hotza erabiliz.
- Erakusgaiek desinfektatuta egon beharko dute.
- Bezeroak probatu ondoren bitxia desinfektatzeko, pasa 96O edo 70O alkoholetan bustitako paper edo kotoizko zapi bat. Prozesu horrek ez dio piezari kalterik eragiten. Baina EZ utzi pieza alkoholetan murgilduta harribitxi porotsurik badu (batzuetan tindatutakoak izaten dira eta kolorea gal dezakete). Alkoholetan garbitu bai, baina alkoholetan jarri, ez. Ondoren zapia bota.
- Gomendatzen da aurreko prozesua bezeroak bitxia probatu aurretik ere burutzea, horrengan konfiantza pizteko. Hau da, piezak alkoholarekin desinfektatzea gomendatzen da proba bakoitzaren aurretik eta ondoren eta, eguna amaitzean, baita erabilitako oro.
- Ez erabili ur oxigenaturik, harribitxirik gabeko piezatan ez bada. Ur oxigenatuak kalte egiten die perla, koral, turkesa, opaloe, lapislazuli, sodalita, esmeralda eta oro har gema porotsu guztiei. Ez garbitu inoiz bitxiak ur oxigenatuzko bainu bidez.
- Ez erabili amoniakoa edo lixiba harribitxi porotsuak garbitzeko, kaltea eragin diezaiekete eta.